

DIRU-LAGUNTZA HITZARMENA

1. Onuraduna:

Elkartearen izena: DOBERA EUSKARA ELKARTEA

IFK zenbakia: G20456653

Helbidea: Hernaniko Larramendi kalea, 11 behea

K/K zenbakia (20 digitu): ES63 2095 5041 1410 6165 2383

Ordezkaria (izen-abizenak eta N.A. zenbakia): FELIX OLASAGASTI ARSUAGA, 44.142.470-L NA zenbakiduna.

2. Hitzarmenaren xedea

Urumea bailarako natura eta ahozko ondarea bildu eta liburu formatuan zabaltzea da hitzarmenaren xedea. Hitzarmen honen bitartez, aurrez jasota duen ikus-entzunezko materiala oinarritzat hartuta idatzizko formatura pasako du Dobera Euskara Elkarteak. Ereñotzuko Toki Entitate Txikia arduratuko da ondare hau herritarren artean zabaltzeaz.

3. Hitzarmenaren justifikazioa

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren interesekoa da auzoko natur eta kultur ondarea ezagutaraztea, horregatik, "Burbunak eta etsayak" egitasmoaren barruan bildutako informazioa eta materiala oinarri hartuta, orain, liburu formatuan ateratzeko beharra ikusten da. Ereñotzuko Toki Entitate Txikiarentzako interes orokorrekoa da ondare hau herritarren artean zabaldu eta ezagutaraztea.

Dobera Euskara Elkarteak, irabazi asmorik gabeko elkarte bat da eta bere helburuak euskararen egoera soziala indartzea eta hernaniarren artean euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea dira. Zentzu horretan, hernaniarren eta naturaren arteko erlazioak sortu dituen berezitasunak aztertzea bere lan-ildoetako bat da.



Dobera Euskara Elkartearen jarduera singularra da udalerrri mailan, ez dago antzeko jarduerak burutzen dituen beste elkarterik. Horregatik, gauzatzen diru-laguntza hitzarmen hau.

Ereñotzuko Toki Entitate Txikia Hernaniko Udalaren menpeko erakundea izanik, diru-laguntza honek Hernaniko Udalaren diru-laguntzen Plan-Estrategikoarekin bateragarria da, zehazki, 3. lerro estrategikoarekin bat egiten du, zeinetan, herriko kultur egiturari laguntza eman, zabaldu eta sutatu, parte hartzen duten eragileen profesionaltasuna bultzatuz eta kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatzea den helburu estrategikoa. Helburu zehatzagoi dagokionez, kasu honetan, euskal historiaren eta kulturaren balore propioak transmititzeko programak edota jarduerak lagundu, zabaldu eta sustatzeko helburuarekin bat egiten du.

4. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu kontsignazioa.

Zenbatekoa eurotan: 2.870,00 €

Partida zenbakia (diru-laguntza izenduna): 01.481.01.334.00 Diru laguntza zuzenak

5. Diru-laguntza ordaintzeko epeak eta moduak.

Diru-laguntzaren %60 (1.722,00 euro) aurrerapen gisa ordainduko da, hitzarmenaren onarpenarekin batera.

Diru-laguntzaren %40 (1.148,00 euro) justifikazioa aurkeztean ordainduko da, Auzo Alkatearen ebazpen bidez, ondoko puntuan zehazten diren dokumentuak aurkeztean.

6. Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntza zuritzeko ondokoak bete beharko dira:

1. Epea: beranduenera 2021-12-31rako aurkeztu beharko da diru-laguntzaren justifikazioa.
2. Diruz lagundutako jardueraren memoria, ondoko gutxieneko-edukiarekin: Proiektuaren azalpena; diru-laguntza zer helburutarako eman den; egindako jarduerak, ezarritako helburuak eta lortutako emaitzak.
3. Egindako jardueren kostua justifikatzeko balantze ekonomiko laburtua, Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren diru-laguntza kontuan hartu gabe izandako DEFIZITA adieraziz.
4. Gastu eta sarreraren zerrenda sailkatua, gastu kontzeptuen arabera antolatuta. Zehaztuta izango ditu: hartzerakoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkitze data eta ordainketa data.
5. Fakturak edo pareko froga balioa duten agiriak; eta, hala badagokio, ordainketaren egiaztagiriak.
6. Jasotako beste diru-laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta ebazpenen kopia.
7. Zerga betebeharren ziurtagiriak: Foru Ogasuna (eta Gizarte Segurantzza hala badagokio).
8. Hala badagokio, aplikatu ez diren soberakinen itzulketaren eta haietatik etorritako interesen ordainketa gutuna.

7. Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Diru-laguntza hau arautuko du, diru-laguntza emateko irizpide honetan ezarritakoak ez ezik, Diru-Laguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia onartzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21ekoa) ezarritakoak, bai eta Udal Diru-laguntzen araudiak.

Zuzeneko diru-laguntzetarako baldintzak:

- Aurrekontuetan izendun gisa aurreikusia egotea (887/2006 Errege Dekretua, 65. artikulua).

8. Onuradunaren aitortpena.

Onuradunak aitortzen du ez dagokiola diru-laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan diru-laguntzaren onuradun izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

Zehatzago esan, erakunde onuradunak egiaztatzen du egunean dagoela zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta ez duela behartze bidean itzultze prozedurengatik ordaintzeke dagoen diru-kopururik. Era berean, aitortzen du ez dagoela sartuta behartze bideko kobrantzako prozeduretan, Udalarekin edo haren erakundeekin egindako zorrak direla-eta.

9. Helburu bera duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin emandako diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da diru-laguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, diru-laguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

10. Kontabilitate liburu eta erregistroak, diru-laguntza egoki justifikatzea bermatzeko eta finantzak kontrolatzeko eskatuak.

Onuradunak jardueraren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatu beharko ditu. Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izan beharko ditu, behar bezala ikuskatuak, aplikatzekoa zaion merkataritzari eta sektoreari buruzko legedian xedatua den moduan. Justifikatzeko agiriak gorde beharko ditu, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko, lau urtez.

Era berean, laguntza eman beharko die Udal Administrazioiko organoei, eta haiek eskatutako agiri guztiak eskuratu beharko dizkie; berdin jokatu beharko du Europako Batasuneko arauen arabera finantza kontroleko eginkizunak dituzten organoekin ere.


Hernanin, 2020ko abenduaren 09an

Ereñotzuko Toki Entitate Txikliaren izenean

Dobera Euskara Elkartearen izenean



Unai Erroitzenea Gamio



Felix Olasagasti Arsuaga